

Bistan da: euskal idazleria gaztea da. Izan ere, % 33ak berrogei urtetik behera du. Datu edo eman honen esankizunaz jabetzen ez denak, gogora beza ez dela inor idazle jaiotzen, eta, ikerketek erakutsi bide dutenez, idazlearen idazlanerako edaderik egokiena berrogei urte ingurukoa omen da.

Ikustekoa da, baita, 35-40 urte-tarte horietakoen kopuru eskasa. Zergatik? Beharbada, 1936ko gerrak sorturiko kondizioengatik gainerakoei baino zailago gertatu zaielako idazten hastea.

Gure ikerketari dagokion irudia, 1974ean urtemugatua da. Piramide honek agerian jartzen dituen hazaldi edo talde batzuren aipamena egin dezagun orain.

Urte honetan, 1974ean, gerra aurreko idazle asko bizi da oraindik. Belaunaldi hartako izar handi batzu itzali badira ere (Orixe, Jautarkol, Dassance) eta gainerakoek 70 urtetik gora ukan arren, lanean dihardute, hala nola, J. M. Barandiaran, J. Azpeitia, M. Lekuona, N. Etxaniz, Zeleta, A. Labayen, A. Irigarai, E. Salaberri, M. Ziarsolo.

Gerra aurrean idazle gazte edo hasiberri zirenen, eta gerra osteko lehen literatur ekitaldiko idazkintza gehienbat gidatu dutenen belaunaldia dator hurrengo. Izen ezagun asko hemen: L. Akesolo, F. Artola, B. Aurre-Apraiz, Basarri, I. Berriatua, E. Erkiaga, P. Bordazarre, J. M. Etxaburu, Gaztelu, J. A. Goiria, A. Ibinagabeitia, T. Monzon, P. Muxika, S. Onaindia, P. Narbaiz, J. Oñatibia, Uxola, J. Zaitegi, A. Zatarain, A. Zubikaray, A. Zugasti.

Gerra osteko idazle hazaldia hasten da gero, besteak baino ttikiagoa numeroz. 50-60 urte dituzte 1974ean. Hauetako

---

## EL EUSKERA, LA LENGUA DE EUSKAL HERRIA

### LOS VASCOS Y SU LENGUA, EL EUSKERA

El polígrafo navarro Arturo CAMPION escribió las siguientes palabras en su prólogo a la *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la Lengua Euskara* (1884):

*Hablada la lengua euskara por una raza de origen desconocido, de filiación ignorada, a la que los más antiguos documentos nos presentan como propietaria de la región que hoy ocupa, por lo menos, y que se ha encontrado en varias ocasiones frente a frente de otros pueblos que representan gran papel en la historia, como son los celtas, latinos, germanos y árabes, siempre combatiendo por la independencia, y ejerciendo, en ocasiones, decisiva influencia en los destinos de España y Francia, parece inútil señalar el aliciente que el conocimiento del euskara presenta. (...) Para nosotros el euskara es algo, mucho más que un instrumento de investigaciones científicas; es la lengua de nuestros padres (...). Es un testimonio vivo y fehaciente de nuestra jamás domada independencia nacional; y es elemento que tiende a diferenciarnos, a dotarnos de fisonomía propia, y por lo tanto, a crear obstáculos a nuestra completa asimilación, desde hace tanto tiempo perseguida y puesta en práctica por tan arteros medios.*

Campion escribía estas líneas herido por el despojo foral de 1876 e ilustrado

asko eta asko eredutzat eta eragiletzat hartuak izan dira, eta dira: E. Agirretxe, Iratzeder, J. Etxaide, J. A. Garate, X. Gereño, J. Harischelhar, J. Kerexeta, F. Krutwig, P. Larzabal, J. A. Loidi, L. Mitxelena, S. Mitxelena, J. San Martin, Martin Ugalde, L. Villasante, P. Xarriton.

Laugarren lekuan ikusiko nituzke, gaur 35 urtetatik 50era dituztenak. Gerrako hazaldiaren eta gazteagoaren artean zubi bezala dira hauk. Berrikuntzaren lehen eragileak dira hauetariko asko. Joxe Azurmendik hauei buruz dioenez<sup>1</sup>: «*Gerra ondoko hutsunean sortuak dira; hots, ez dira literaturara mogimendu literario heldu baten barruan jaioak*». (Interesgarri da, hildo berean, Orixek 66 urte zituelarik gaurko idazle ezagunenek zenbat zituzten ohartzea, Azurmendi berak egindako karkuluetan<sup>2</sup>. Garai honetako idazle zenbait oso ezagunak dira: P. Altuna, Txillardeggi, D. Amundarain, J. M. Aranalde, J. Arenaza, G. Aresti, M. Atxaga, X. Azurmendi, I. Beobide, F. Bilbao, L. Dorronsoro, M. E. Erdozainzi, B. Gandiaga, G. Garate, S. Garmendia, J. Gaztañaga, I. Laspiur, J. M. Lekuona, A. Orbegozo, D. Peillen, J. M. Sarrutegi, A. Zavala. Eta gazteago: J. L. Davant, R. Kanblong, M. Lasa, L. M. Muxika, J. Intxausti, J. Kalzada, F. Mendizabal, E. Osa, J. L. Lizundia...).

Eta azkenik, barnean bereizketarik egiterik badagoen arren, batean hartzen dugu 25-35erako tartea. Hazaldi berria, aurrekoekin hasi eta hementxe loratzen da, fruituak ematen hasten da. Susperraldirik biziena oraintxe du euskal kulturak. Izen ezagun asko hemen ere: R. Arregi, J. Azurmendi, P. Iztueta, J. A. Letamendia, M. Azurmendi-Intxausti, J. M. Torrealday, Mikel Ugalde, J. Apalategi, X. Mendiguren, X. Kintana, D. Landart, Lantziri, L. Haranburu-Altuna, A. Lasa,

---

por los trabajos de Luis Luciano Bonaparte. De la mano de este ilustre vascólogo, el historiador y gramático navarro había comprendido la urgencia de salvar para el futuro la personalidad del pueblo vasco. El euskara significaba la mejor salvaguardia de esa etnia cultural.

Secularmente, cuantos desde el exterior habían asomado al misterio de este pueblo habían dejado constancia de su lengua: un idioma distinto, enigmático y, decían, ininteligible. Los romanos, que llegaron por el Ebro o por las rutas de Aquitania; los visigodos, que atacaban periódicamente desde la Meseta, o los musulmanes, que llevaban a cabo sus razzias contra las inhóspitas tierras del Norte, encontraron siempre un pueblo con una lengua extraña.

Los peregrinos medievales de Santiago se aventuraron a recoger algunos vocabularios del euskera, que hoy nos resultan valiosos instrumentos de investigación. En la Edad Moderna otros viajeros, algunos tan ilustres como Guillermo de Humboldt, observaron atentamente el hecho lingüístico del euskera.

Humboldt fue, en verdad, un observador excepcional. Entre los años 1799 y 1801, estuvo por dos veces en el País Vasco. Político, lingüista y antropólogo, amigo de Goethe, figura como fundador y primer rector de la Universidad de Berlín. Tomó parte en el Congreso de Viena y en 1819 defendió a los demócratas

A. Lertxundi, X. Lete, A. Sagarna, I. Sarasola, R. Saizarbitoria, P. Urkizu, A. Urretabizkaia...

Adinaren arabera soilik ikusirik, unadaz-unada, ez da erraza belaunaldiak eta taldeak ongi mugaturik ematea. Izen ezagun batzu urtealdi batzutan kokaturik presentatzea izan da nere oraingo asmoa. Talde edo ekipo fenomenoaz aztertzen hasteko datu zenbait, emaniko zerrenda horietan aski garbi ikusten delakoan nago. Hain zuzen idazle ekipo horien presentziak esplikatzeko du irudiko elkarren ondoko luzatze-estutze hori. Idazleen adin-piramide guztietan berdintsu omen da, dio Escarpitek. Eta fenomeno horren esplikazio hau ematen du berak: «*Idazle talde bat idazkintzaren zelaira sartzen denean (taldea adin guztitakoek osatu arren, adin bat izan ohi da dominatzaile), orduan, oharkabe ala oharturik, boka-zio berrien plazaratzea blokeatu egiten du epe batetan*»<sup>3</sup>. Urte batzutan idazle asko dagoenean, hutsunea nabari omen da hurrengotan.

Esan bezala, izen ezagun zenbait multzoka eman baino askoz gehiagorik ez dugu egiten agian, belaunaldien aipamen honetan. Jaioturtea soilik ukan dugu kontutan. Bistan da, inor idazle jaiotzen ez denez, belaunaldi baten eraketan, gainerako mediatizazio eta tarteko asko daude eragile. Horregatik ez dira idazleak oro edade berean idazle bilakatzen, gisa denez: adinez halako urtetakoa dena, ekipoz, joeraz sarritan izan ohi da geroagokoa. Gure artean ere bada holakorik. Zenbait idazle, adibidez, A. Zubikaray, Joan San Martin, R. Kanblong, beren adinkideak baino beranduago hasi eta ekin zioten idazteari. Pentsatzen dudanez, eta hipotesi gisa diot, idazle laiko zenbait («Gazte naiz» taldekoak salbu) bakoitzaren historia pertsonala aparte utzirik ere, has-

---

prusianos. Retirado desde entonces de la política, se consagró por entero al estudio de las lenguas. Intuitivo y científico a la vez, es considerado como una de las cumbres de aquella naciente lingüística moderna. Comienzan así sus notas de viaje al País Vasco: *oculto entre las montañas habita las dos laderas de los Pirineos occidentales un pueblo, que ha conservado por una larga serie de siglos su primitiva lengua y, en gran parte también, su antiguo régimen y costumbres, y que según la expresión de un moderno escritor, se ha sustraído, tanto a la mirada del observador, como a la espada del conquistador, el pueblo de los vascos. (...). Desgarrado en dos pedazos muy desiguales y subordinado a naciones poderosas, no han renunciado los vascos, empero, de ningún modo a su propia manera de ser (...) y han conservado siempre la peculiaridad de su carácter nacional.*

Desde hace milenios y antes de que aparecieran o nacieran las lenguas que rodean hoy al euskera, los vascos (= *euskaldunak*) empleaban ya este idioma. El euskera era siempre la lengua que los definía como pueblo y como comunidad cultural; su idioma era un instrumento de identidad colectiva.

El euskera está aún vivo entre los vascos del siglo XX, que aspiran a hacer de él la lengua que los vincule a una tradición milenaria y les abra a un futuro más moderno y auténtico. El euskera es el idioma de Euskal Herria o Euskadi.

---

tapeneko trabengatik eta inguruko talde-laguntzaren falta-gatik, etorri dira horrexegatik idazkintzara besteak baino beranduago.

**EZ DA INOR  
IDAZLE  
JAIOTZEN**

Nork ez daki: ez da nehor idazle amaren sabeletik. Dohainak ez du dena esplikatzen. Lana behar da. *Processus* luzea da idazkintza. Idazle egin egiten da bat. Idazle bilakatzea ez da berez gertatzen, ez eta indar ulergaitz batzuren bidez suertatzen. Ez da kasualitatea adin beretsutan idazle-sorta bat bilatzea, ez eta ekipo gisa antolaturik agertzea. Frogaturik dago idazle bokazioak sortzea, idazle taldeak plazaratzea, gertakarien arabera jazoten dela. Eta gehienetan, politik inguruko gertakariak izan ohi dira. Erresuma aldakuntzak, iraultzak, gerrak, aipatzen ditu Escarpit jaunak. Baina, ekonomiazkoak, kulturalak eta enparauak ezin ditzakegu ahantz.

Euskal idazleria ez dela horretan salbuespen, uste dugu. Eta zergatik izango? Gizarte-fenomenoen eta idazle-sorkuntzaren harremanetaz gehixeago jakin nahiz, bizpahiru puntu azalduko ditut, estudio sakonik egiteko adinako daturik ez dudala alde zuretik garbi utzirik. Indikazio aski fidagarriak iruditzen zaizkigu, gure asmotarako, jarraiko zehaztasunok.

Hasteko, idazkintzaren hasera galdetu zitzaien inkestako idazleei. Eta haien erantzunak honetara banatzen dira:

<u>Urte-tarteak</u>	<u>Idazleak %</u>
1900 - 1920	4
1921 - 1930	12
1931 - 1935	12
1936 - 1940	2
1941 - 1950	7

**¿DE DONDE  
VIENE EL  
EUSKERA?  
EL PROBLEMA  
DE SUS  
ORIGENES**

**OPINIONES DE LOS  
HISTORIADORES**

Los historiadores, del País Vasco o extraños al mismo, percibieron muy tempranamente el valor del euskera como instrumento de excepción para penetrar en la Prehistoria de la Península. Desde que tomaron conciencia de la singularidad histórica de este idioma, han estado, frecuentemente, unidos en los debates el tema de los orígenes del euskera, y el de la procedencia y naturaleza de los primeros pobladores de Iberia.

Generalmente, los autores clásicos de la Historia del País hacían remontar sus orígenes hasta hechos y personajes bíblicos. A falta de métodos más depurados de lingüística histórica, los sucesivos historiadores se copian mutuamente o se apoyan en elucubraciones que hoy se nos antojan carentes de rigor. Los datos resultaban inasequibles, y recurrían al testimonio de los autores precedentes, y en última instancia al de la Biblia, a la que se consideraba como una fuente de información para la Historiografía.

Siglo XVI (Zaldibia, Garibay, Poza, Mariana)

No nos debe extrañar, pues, que el primer historiador guipuzcoano, el BACHILLER ZALDIBIA (1560), hablara en los siguientes términos: en la Torre de Babel fueron confundidas las lenguas de una que había en setenta, e idos por el mundo, Túbal, hijo de Jafet, vino a las Españas con sus compañías y lengua que traían y pasó en los montes Pirineos, [y así] los vascos y los navarros tenían su lengua, que es la vascongada, que Túbal y sus compañeros trajeron.

<u>Urte-tarteak</u>	<u>Idazleak %</u>
1951 - 1960	32
1961 - 1970	26
1971 - 1974	5

Gauza bat edo beste nabarmen gelditzen da zenbaki hauetan. Agerian dago gerrak sorturiko gerakuntza, % 2 barrik bait dira 1936-1940 urte bitartean idazten hasiak, eta gerora ere, 1950era arte, beste % 7 besterik ez.

Berrikuntza, xifrek ageri-agerian uzten dutenez, 1950 urtetik gerokoa da, orduantxe hasia: inkestako % 63 idazle dira 1950 baino geroago idazten hasiak. Honi zera erantsirik, alegia, idazleen % 58a hogeitabat urte orduko hasi dela izkribatzen, bi datu hauekin, frogaturik dago gerra ezagutu ez zuen hazaldiaren sarrera masiboa dela oraingo hau.

#### ALDAKUNTZAREN GERTAKARIAK

Berrikuntzaren faktore bat horixe da, gerra ez ezagutzea. Gainera, urte horietan, ingurua ere mogitzen hasten da, eta giroa aldatzen. Hona J. Azurmendik nola deskribatzen duen sozio-politikazko aldaketa hau:

*Gerra ondorena, kanpotiko interbentzioren baten itxaropenez ala bildurrez bizi zen. «Kanpoak» berebiziko inportantzia zuen. Espainia barnea kutxa batetan hertsita bezala zegoen. Ekonomiak ia ez zuen gorakadarik: 1935koean buruko 8068 pesetako, 1953an 8982 pesetako errenta kontatzen da. Kanpo aldera hertsita dago: bere gogoz, bere premiaz, eta kanpotik ezarri zaion blokeoz. Ahal dentxoa egiten da. Zapalketa gogorra. 1951ean huelgak, Donostiako gotzaiak «Egiz» apezen isilpeko agerkaria, debekatzen du. 1952ean USAk eta Espainiak militar itun edo tratua egiten dute, Espainiaren blokeo eta isolazioa, bakartzapena, bukatuz. 1953an Vatikanoarekin Konkordatoa, Ekonomia bizi herritzen hasten da. Eta Euskal Herrira langile erdaldunak uholdeka sartzen dira: 1950 eta 1960 artean, 96.388 langile erdaldun Bizkaiara eta 48.567 Gipuzkoara. Errealidade berriak*

---

Los autores irán asociando el primer poblamiento peninsular con la primitiva lengua de Iberia. Se plantea, así, el debatido tema de si el vascuence fue también la lengua universal y única de aquellos aborígenes ibéricos, en lo que, después, había de ser España y Portugal. El mondragonés ESTEBAN DE GARIBAY, el primer historiador general de España, escribió así en 1571 (casualmente el año de la publicación del primer libro euskérico en prosa): *La Lengua de Cantabria fue la primera que se habló en España (...) y ella es una de las setenta y dos de la dispersión de las lenguas del mundo, por ser la lengua que con ninguna otra tiene participación.*

Favorecidos por su evidente antigüedad, los apologistas del euskera subrayaron la nobleza del mismo, retrotrayendo sus orígenes hasta la Torre de Babel o el Paraíso Terrenal. EL LICENCIADO POZA (1587), en su **Antigua Lengua de las Españas**, la llama *puramente babilónica*, y es, además, la *maternal y general de España* y la que suplantó en la Península a la hebrea (que era conceptuada como la lengua universal antediluviana): *con la multiplicación de los vascongados que vinieron de Armenia y de los campos de Senaar, fue su lengua poco a poco oprimiendo a la hebrea, hasta quitarle de todo punto el uso y memoria suya.*

La tesis de la universalidad ibérica del euskera se verá perturbada por MORALES y el P. JUAN MARIANA (1591). Este admitía, desde luego, porque así

*nagusitzen dira. Gobernua gotorki konsolidatzen. Eta abar. Ez naiz luzatuko. Baina, giza legezko iruditzen zait, kanbio sozio-politiko honi garaiz antzemateko begiak izan zituztenek, jokatibide kulturaletan ere «kanbio politiko» bat erabakitzeke argitasuna eta kemena izan bazuten, guk hori esker onez baloratzeara. Eta inportante iruditzen zait, 1950 aldera hasten den aldakuntza sozio-politikoa, ekonomikoa nahiz kulturala, zinezkotzat hartzea. Gero gerokoak. Euskal kulturgintzak, berak bere buruari opa ez dizkion bezalako baldintzen gainean ala azpian, aritu beharko bait du.<sup>4</sup>*

Gertakarien eta literaturgintzaren paralelismoaren arriskuak ezagutzen ditugu. Baina, hemen, ezinbestean, azterketari ez baino aipatze soilari lotuko natzaio. Garai hartako gertakari zenbait gogora ekarriz, ikertzailearen bati ihizia atera nahi liokete zerrenda hauek, eta besteoi eragipen posible hori gogoratu.

### Munduan zehar

Giroa sortzeko eta aldakuntza bultzatzeko, kanpoko gertakari zenbaitek izan duen eragin bortitza ukaezina da. Adibidez:

- 1953 — Stalinen heriotza.  
Kruchetchev-en aginte hartzea.
- 1956 — Sobiet Batasuneko Alderdi Komunistaren XX Kongresoa: pertsonalitate kultuaren kondenapena.
- 1957 — Merkatu Bateratuaren eta Euratom delakoaren sorrera. Lehen Sputnik horren bidaltzea.
- 1959 — Kastroren Habanan sartzea.
- 1960 — Joan XXIII.a eta Mater et Magistra.  
Kontzilio Batikano II.a  
Kennedy Estatu Batuetako Lehendakari.
- 1961 — Pacem in Terris.
- 1962 — Argeliaren askatasuna.

---

*lo sienten y testifican autores muy graves, que Túbal había sido el primer poblador de la Península. Mariana calificaba el euskera de *Lenguaje grosero y bárbaro*, y que no recibe elegancia y es muy diferente de los demás. A esta calificación injuriosa, el historiador jesuíta añade la duda sobre su universalidad y unicidad ibéricas: *la lengua vizcaína no fue la que usaba comúnmente España. No negamos empero haya sido una de las muchas lenguas que en España se usaban antiguamente y tenían: solo pretendemos que no era común a toda ella.**

Siglo XVII (Echave, Moret, Oihenarte)

Los historiadores vasco-iberistas (generalmente, historiadores del País y amantes del euskera) reaccionan vivamente ante esta hipótesis. Para ellos, la nobleza del vascuence se fundamentaba más en aquella antigüedad y universalidad, que en su capacidad expresiva o en la producción literaria.

BALTASAR DE ECHAVE, un zumayano avecindado en Méjico, publicó en 1607, en aquella ciudad azteca, unos **Discursos de la Antigüedad de la Lengua Cántabra**, cuyo subtítulo dice así: *Introdúcese la misma lengua, en forma una Matrona venerable y anciana, que se quexa, de que siendo ella la primera que se habló en España, y general en toda ella, la ayan olvidado sus naturales, y admitido otras extranjeras.* En Echave quedan corroboradas con nuevas etimologías y datos, pretendidamente históricos, las tesis de Garibay. Es de notar cómo alude a Ma-

## Euskal politikan

Euskal idazleria hurbilagotik ikutzen duen jazoera xit inportanterik izan da Euskal Herrian ere. Adibidez:

- 1957 — Kristau progresista zenbaitek FLP (Frente de Liberación Popular) sortzen du.
- 1959 — ETA (Euskadi ta Askatasuna) olde iraultzailea sortzen da.
- 1960 — 339 apezten Gutuna, Euskal Herriaren kultur zampaketa salatuz, egoera Giza-Eskubideen kontrakotzat joaz.  
Jose Antonio Agirre, Euskadiko Gobernuaren Lehendakariaren heriotza.  
1960az gero indar politiko eta sindikal zenbaiten azkartzea, indartzea: EGI, ELA.
- 1963 — Enbata, olde abertzale eta europear federalistaren jaiotza Ipar Euskal Herrian.

## Euskal kulturari

Kultur mundua ere mogitzen hasia da, eta bada berritasunik. Adibidez:

- 1949 — S. Mitxelenaren *Arantzazu, Euskal poema*, gerra ondoko hego aldeko lehen liburua.
- 1950 — *Euzko Gogo*a sortzen da Guatemalan.  
*Euskaldunak* Orixeren poema argitaratzen da.
- 1952 — *Kulixka Sorta* sortzen du Itxaropenak.
- 1953 — *Anaitasuna* sortzen du I. Berriatuak.
- 1954 — *Otoizlari* aldizkaria ateratzen da Belocken.  
Axularren *Gero* liburuaren 4. edizioa.  
*Egan*, orain euskara hutsean.  
*Milla Euskal Olerki Eder* liburua ateratzen du Onaindiak.
- 1955 — Etxaideren *Joanak Joan*.  
Loidiren *Amabost Egun Urgain'en*.

---

riana, y la explicación política que da Echave a la falta, en sus días, de una abundante literatura euskérica: *Por donde podéis y debéis hechar de ver, que no soy tan bárbara y de despreciar como algunos escritores me hazen [...], y si no hay escrituras, no es porque no debo y puedo ser escrita y nombrada por el mundo, [...] sino porque [...] me procuraron desterrar del mundo los Emperadores Romanos.*

Los grandes historiadores vascos del siglo XVII como OIHENART (1638) y el P. MORET (1684), en los que ya despunta un nuevo sentido crítico, continúan con la defensa del vasco-iberismo. MORET afirma de nuevo la universalidad ibérica del euskera; el mismo OIHENART, crítico mucho más cauto, que rechazó por ejemplo la identificación de vascos y cántabros, escribió a propósito de la primitiva extensión territorial del euskera: *creo que esta fue la lengua de todos los montañeses, que vivían en el Norte de España, es decir, de los Vascos, Várdulos, Autrigones, Caristos, Astures, Cántabros, Gallegos y Lusitanos.* Y considera que las lenguas de los demás pueblos primitivos de la Península no eran sino dialectos afines al vascuence. En todo caso, en el contexto de las tesis de estos historiadores, el euskera es la lengua de los primeros pobladores que aparecen asociados a Túbal y su hijo Ibero.

- 1956 — *Euskera*, Euskaltzaindiaren aldizkaria, berriz.  
*Jakin* aldizkaria sortzen da Arantzazun.  
 D. Agirrereren *Garoa*, Kirikiñoren *Abarrak* eta J. A. Mogenen *Peru Abarka* bir-argitaratzen dira.
- 1957 — Txillardegiren *Leturiaren Egunkari ezkutua*.  
 Lizardiren *Biotz begietan* bir-argitaratzen da.
- 1959 — *Olerti* aldizkaria ateratzen du S. Onaindiak.
- 1960 — Txillardegiren *Peru Leartzako*.  
 L. Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca*.  
*Goiz Argi* sortzen da.
- 1961 — *Cinsa* eta *Auspoa* editorialak jaiotzen dira.  
 Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* ateratzen da.
- 1962 — Sarrailh de Yarzaren *Vasconia*.
- 1963 — *Goiztiri* sortzen da Ipar Euskal Herrian.  
*Zeruko Argia* astekari bilakatzen da.
- 1964 — *Jaunaren Deia* aldizkaria publikatzen hasten da.  
 Arestiren *Harri eta Herri*.  
*Baionako Batasuna*.

## IDAZLEEN JATORRI SOZIO-PROFESIONALA ETA EGOITZA

Idazlea gizartekide denez, honen ezaugarri batzu markatu nahi genituzke. Nola jokatzeko duen gizarte horren barruan, gero ikusiko dugu hori luzaz. Baina idazlea ez baita zerutik etorria, eta marfilezko gazteluan ere ez denez bizi, aurrekoan bezalatsu, hemen ere, bi arazo modu aztertu ohi dira. Zein da idazlearen «milieu d'incubation» delako hori, hau

---

Siglos XVIII-XIX  
 (Larramendi, Astarloa,  
 Humboldt)

En la historia de este debate, los siglos XVIII-XIX nos ofrecen varios nombres importantes entre los que debemos recordar los de Larramendi, Hervás, Astarloa y Humboldt. El andoaindarra P. MANUEL DE LARRAMENDI, en vísperas ya de la publicación del *Imposible vencido* (primera gramática del euskera), dio a la luz pública un libro intitulado *De la Antigüedad y universalidad del bascuence en España (1728)*. Pone el origen del mismo en los primeros pobladores de la dispersión que siguió al Diluvio, y añade: *La Lengua Bascongada en aquellos primitivos tiempos fue la Lengua común y universal de todos los Españoles*. Y Larramendi agrega una de sus pintorescas etimologías, como prueba definitiva del caso: *I-bero = tú eres cálido* sería la designación vasco-ibera del Ebro y, por consiguiente, de Iberia. Según eso, un nombre de etimología euskérica...

Lo que en Larramendi pudo ser, al menos en ciertas pruebas muy poco probativas, una ironía intelectual, Pablo Pedro de ASTARLOA transforma en una extensa *Apología de la Lengua Bascongada o ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todos los que se conocen (1803)*. Era una defensa a ultranza, casi de categoría metafísica, de todas las viejas tesis en torno a los orígenes, y venía a ser una réplica a las dudas expresadas por TRAGIA un año antes en el *Diccionario Geográfico-Histórico (1802)*.

A comienzos del siglo XIX, la verdadera novedad fue aportada por el eximio hombre de ciencia germano WILHELM VON HUMBOLDT en su obra *Primitivos*



da, nondik dator idazlea, zein gizarte-lekUNETIK? eta, bigarren, zein da «milieu littéraire» hori edo idazlea non kokatzen den gero, idazlearen gizarte maila, lanbidea.

Lauki bat, idazleria osoaren jatorri zehatzarekin ematea, gauza nekeza da, datu faltagatik. Honako lauki hau, idazleek berek eskainitako datuekin eratua da, baina ez da osoa.

<i>Sozio-profesional kategoriak</i>	%	%
	<i>Aita</i>	<i>Idazlea</i>
Lanbide liberalak (mediku, abokatu, injinari, irakasle...) ... ..	12	45
Letra eta artea ... ..	2	8,5
Erlizozko lanbideak ... ..	0	31
Funtzionari, enplegatu ... ..	6	8,5
Komertziari ... ..	12	2
Industri langile ... ..	22	3
Esku langile ... ..	12	0
Nekazari ... ..	34	2

## IDAZLEEN JATORRI HERRITARRA

Berresan dezagun: Inortxo ere ez da idazle jaiotzen. Penaz eta nekez egiten da bat idazle. Bilakabide honetan zalan-tza gabekoa da, jatorria lehen baldinkizuna dela. Onerako nahiz txarrerako, etxean eman ohi dira lehen urratsak. Jatorriarekiko dependentziak erro sakonak ditu.

Euskal idazleen jatorriari begiratzuz, idazleon jatorri herritarra da daturik nabarmenena. Langileen eta nekazarien semeen kopuru handia da jatorri arazoan esanguratsuen. Bien artean % 68 osatzen dute. Asko da, ikaragarri. Idazleen geroko jarrera asko, nahiz idazkintzari, nahiz herriari begira, datu hau ahantzi gabe irakurri beharko dira.

---

**pobladores de España y Lengua Vasca** (1821). Humboldt posee una mente matizada y una pluma cauteiosa. Considera el euskera como un instrumento apto para la prospección histórica y prehistórica, siempre que se someta la investigación a una metodología estricta y rigurosa, huyendo siempre de etimologías fáciles. El análisis de la toponimia peninsular lleva a HUMBOLDT a la siguiente conclusión: *el vasco era el idioma de los iberos y, pues este pueblo sólo parece haber tenido un idioma, son pueblos ibéricos y vascos expresiones sinónimas. Los nombres de lugar vascos se hallan sin excepción, en toda la Península y los iberos están esparcidos, por consiguiente, en todas sus partes.*

Esta tesis vasco-iberista tendrá en nuestros días un defensor insigne en H. SCHUCHARDT, pero con él, dentro de la tradición de Humboldt, nos hallamos ya ante una investigación lingüística que abandona las *tesis bíblicas* y las sustituye por la búsqueda sistemática del dato comprobable.

Con él, entre otros, comienza un capítulo brillante de la lingüística contemporánea. Lo reseñamos más adelante.

## VISION ACTUAL DEL PROBLEMA

Los lingüistas han acudido a dos criterios principales para la clasificación de las lenguas: al criterio *tipológico*, que se fundamenta en las características internas de la lengua, y al criterio *genealógico*, que atiende a los orígenes y relaciones de parentesco. Al referirnos aquí al euskera, nos fijaremos en este úl-

Nekazaritzak % 34 ematen du, berak bakarrik. Egin dezagun kontu gain-behera datorren ingurune batetik sortu direla idazleok. Jendetza langilearen kopuru erlatiboan ere Euskal Herrian % 10 bakarrik okupatzen du lur-lantzeak. Gero eta gutiago. Baserritik kalerako aldaira hau, biziki azkarra da. Gaur, % 10 bakarrik izanik ere lur-langile, % 32 baserritarren seme dira eta % 55 baserritarren hiloba.

(Parentesi artean seinala dezagun, komertzikoak zein idazle guti eman duen, uste zitekeenaren kontra).

Idazleen beste multzo handi bat esku-langile edo industri-langileen seme da. % 34 osatzen dute bien artean.

Nik dakidanez, gainerako herrietan, jatorri kontuan ez da holakorik gertatzen, herri hazietan bederen. Hau da, baserria eta langilearen etxea ez dira idazle bokazioak sortzeko, pizteko, berotzeko, aurrera ateratzeko lekurik hoberena. Gure artean honela gertatzen da, datu hauk oker ez badaude.

Eta ez da ulertezina fenomeno hau. Geroko mediazioak aparte uzten baditugu ugaritasun honen arrazoin behinena, ezpairik gabe esango nuke, hizkuntzaren ezagutzapenean aurkitzen dela. Giro, gizarte maila eta kategoria horietan gorde izan da euskara. Horrek baldintzatzen, determinatzen du enparaua. Bestalde, abertzaletasunaren azken indarraldi berriak ere leku beretan izan ditu gazterik eragileenak. Sintoma bat da hori ere.

Etorkizunari begira, oker ez bagaude, guti barru asko aldatuko da euskal idazleen jatorria. Eta beharko aldatu, baldin idazlerik izango bada. Kanean bizi da orain euskalduna. Eta kaletik etorriko da euskal idazle modernua. Hasia da jandantik sortzen.

---

El euskera, un iceberg  
lingüístico

timo aspecto: ¿de dónde proviene el euskera?, ¿cuál es el antepasado genealógico del vascuence?, ¿conocemos alguna familia de idiomas que pueda ser considerada pariente del mismo?

Lo mismo en la Historia que en la Prehistoria, el euskera se nos presenta como un idioma inseparablemente unido a la cultura y el destino de una colectividad. En la Historia conocemos pueblos que han cambiado de lengua. Es concebible, pues, *la hipótesis* de que el euskera no fuera el idioma original de la raza radicada, durante el Neolítico, en el Pirineo Occidental. Sin embargo, los lingüistas admiten como hecho más verosímil la simbiosis, desde los orígenes, de raza e idioma vascos en un mismo pueblo. Se estima coincidente la antigüedad de ambos.

Como un iceberg —viajero singular de la Historia— el euskera proyecta sus raíces hasta niveles difícilmente detectables de la Prehistoria. Lo que BOSCH-GIMPERA dice en relación con el pueblo vasco vale también para su idioma: *está resuelta ante todo la antigüedad del pueblo vasco, uno de los grupos de los pueblos pirenaicos que han cobrado ya su personalidad en el neo-eneolítico, o sea durante el tercer milenario a. de J. y que parece la evolución local de la población indígena de raíces paleolíticas.*

La pervivencia del euskera se nos presenta como un hecho histórico-lingüístico.

Aurrerantzean, euskara tradizionalki mintzatu den lekuak (baserriak) gizarte-goititasuna galtzean, euskararen iraupenerako beste euskarri batzu aurkitu behar dira. Eta urgentziaz aurkitu ere. Eragipen determinatzailea izango du, horregatik, eskolak. Beste edozein hizkuntza bezala, euskara ere amaren bularretik edoskiz (bakarrik) ez baino eskolan ere ikasi beharko da, esne txarrez bada ere. Eskolaren aldamean jarri behar dira, urgentzia berarekin, alfabetatzea eta euskalduntzea. Hau da esan nahi duguna: eskola, alfabetatzea eta euskalduntzea hedatuz doazen ginoan, euskal idazleen gizarteko eta geografiazko jatorriak aldatuz joango dira.

**NON  
KOKATZEN  
DIRA  
IDAZLEAK?**

Non egiten du habia idazleak? Hots, zein gizarte mailatan bizi da? Idazleen artean mugikortasun handia egon ohi da. Gurasoen lanbidearekin, edota haien mailan, geldituriko guti dago. Laukian sailtxo batzu hutsik edo erdi hutsik agertzen dira, idazleen beraien lanbideari dagozkiolarik, esaterako, nekazari lana, teknik lana edo artisautza eta komertzioa.

Zer gertatu da hemen?

Fenomeno hau osterantzeko literaturatan ere nabari da. Nabarmena izan ohi da erdi alderako kontzentratze hori. Be-launaldi batetik bestera, joera, gizarte mailaketaren erdi aldera joatekoa da beti, eta ez goienetakoraino. Hauzi gordina planteatzen du honek. Itxura guztien arabera, klase batzuentzako debekaturik legoke literaturgintza. Gure kasuan, jatorriz nekazaritza ugari badatoz ere, nekez aurki daiteke idazle nekazaririk. Eta gainerako esku lanetan beste horrenbeste. Profesional kategoria horik eta idazkintza elkarren etsai ote dira? Idazteak giro bat eskatzen du, esango da, kul-

---

tico sorprendente. Ha sido el logro de una comunidad cultural cada vez más cercada desde las invasiones celtas hasta nuestros días, pero tenazmente resistente. El Profesor René LAFON (1899-1974), un girondino nacido lejos del País Vasco actual, evocaba así este hecho en el discurso de su toma de posesión de la cátedra de euskera en la Universidad de Burdeos: *la lengua vasca no habría entrado jamás en este recinto [de la Universidad], si los vascos mismos, al menos los que merecen verdaderamente el nombre de euskaldun, no hubieran trabajado por mantenerla. Nuestros antepasados aquitanos, ¡ay!, dejaron perder su lengua, con el mayor pesar de lingüistas y etnógrafos. Debemos, pues, rendir homenaje y expresar nuestro reconocimiento (...) a la inmensa masa, modesta y anónima, de todos los que (...) han guardado su lengua ancestral.*

El problema de los  
origenes

El Profesor Luis MICHELENA ha señalado que cuanto sabemos o podemos llegar a saber de las lenguas del mundo, vivas o muertas, solo representa una fracción infinitesimal del conjunto del lenguaje humano. La capacidad de penetración temporal de los métodos lingüísticos es sumamente limitada, en comparación con los cientos de miles de años en que el lenguaje humano se ha expresado de una u otra forma. Esta misma limitación de la lingüística actual hace aún más valiosa la reconocida antigüedad del euskera, como camino de penetración en el pasado.

tur altxor bat ere behar du, eta bereziki astia eta dirua uzten duen lanbidea... Zer adierazten du horrek, herri mailakoek eta batik bat langile klaseak ez dutela idazterik? Elite eta gutiengo baten monopolioa ote idazkintza?

Literatur ekintzaren eta gizarte klasearen arteko harremanak daude hemen hauzitan.

Badago hemen lège moduko bat. Esan dugu belaunaldi batetik bestera gizarte hierarkiaren erdi aldean kontzentratzen, biltzen direla idazleak. Gure laukian garbi garbi ikusten da hau; alègia, «milieu littéraire» hori lanbide profesional eta erlijiozkoak osatzen dutela.

#### LANBIDE NAGUSIAK

Zer esan honi buruz? Profesio liberalak % 45ekin agertzen dira. Zati handi batetan, irakaskuntzak puzturik. Egon ere, bi lanbideen artean badago kidetasunik. Batez ere minoria ttipien kasuetan, eta batik bat gurean, idaztea nahi ta ez literatura egitea ez denean, hots: idazkintzari funtzionaltasuna bilatzèn zaionean, orduan, bi eginkizunak elkarrengandik are hurbilago daude. (Esplika beharrezko salbuespena da andereñoena. Andereño idazle bakan batzu besterik ez dago. Eta emakumeèn artean, gaur bost idazle bakarrik aurkitzen ditugu).

Hemen ere, fenomeno hedatuago batekin topo egiten dugu, eta da: gero eta gehiago jotzen dutela irakasleek idaztera. Roland Barthes, Frantziako literaturaren aztertzaile txalotua har dezakegu lekukotzat, zera dioenean: «*Idazleen kastaren soziologiazko fenomeno handia, azken 30 urteotan zera da, alegia, irakasleak ugari (masiboki) datozela*».

Duela zènbait urte, 1954ean, eta elabergintzari zegokioenez bakarrik, *L'Express* astekariak estatistika bat agertu

---

La búsqueda de los orígenes del euskera ha ocupado un lugar destacado en las investigaciones históricas de los vascólogos contemporáneos. Es bastante frondoso este bosque de propuestas que relacionan al euskera con familias lingüísticas muy variadas: lenguas iberas (España), aquitana (Francia), norteafricanas, indoeuropeas, urálicas (Finlandia, Hungría), altaicas (Turquía), chukche (Kamtchantka, Siberia), amerindias, etc. Se entiende que, una vez probada científicamente una de estas hipótesis de parentesco, estaríamos más cerca de conocer el verdadero origen del euskera.

Recordemos algunas de las soluciones sugeridas y los nombres de sus principales proponentes: la idea de una afinidad genética entre *el vascuence* y *el ibero* ha sido modernamente defendida por Humboldt, Hugo Schuchardt, y los problemas de este vasco-iberismo han sido más recientemente abordados por Tovar y Michelena, entre otros; un asentimiento menos polémico ha merecido el problema de las relaciones entre *el euskera* y *el aquitano* antiguo (tesis esclarecida, sobre todo, por Luchaire). Ya en un ámbito mucho más vasto, *hay dos grupos de lenguas cuyo parentesco con la vasca han intentado demostrar lingüistas de gran autoridad. Se trata, en primer lugar, de las lenguas hamito-semíticas (acadio, hebreo, árabe, egipcio antiguo y copto, líbico antiguo y dialectos bereberes modernos, etc.) y, en segundo, de las lenguas caucásicas* (L. MICHELENA). Para Schuchardt, esta hipótesis *vasco-hamitosemita* no era sino la ampliación

zuen, eta irakasleak urte hartako elabergintzan bigarren lekuan agertzen ziren, % 16arekin. (Lehen lekuan, aurrenekoan, «luma-jendea» zetorren % 41arekin, eta atzetik besteak: % 10arekin abokatuak, % 7rekin funtzionariak, % 5ekin injinariak, % 2rekin midikuak). Gure artean, % 29 bat edo hartzen dute irakasleek.

#### APAIZEN UGALTASUNA

Beste puntu bat ere badago lauki horretan derrigor azpimarratzekoa: apez jendearen kopurua. Lanbide erlijiosotan dabiltzan idazleak ugari dira, % 31, idazleek berek emandako datuekin. Baina, idazleak oro kontuan harturik, ia ehuneko berrogeira hurbilduko lirateke (% 39). Ezagutzapen enpirikotik landa, datu osoki fidagarri guti izanik ere ondorio hau segurtasunez ateratzeko, esan dezakegu gutienez % 25 hor ere lanbide liberalek hartzen dutela. Kontu egin, apez idazle asko ber denboran irakasle dela, eta kasu hauetan horiei apaizgoa bakarrik jarri diegula profesio kontaktetan.

Apez jendearen ugaritasun hau euskal kulturaren irudia besterik ez da. Euskal kulturaren hazkuntza eskasaren ezauzgarri esanahitsua. Zenbatgura arrazoin agertuko dira klerikalismoa aztertzean, gero ikusiko dugunez. Orain, bat bakarra gogoratuko dugu: eskolan, hots, irakaskuntzan euskararen aztarrenik ez dela izan, pertsegizioa baino, eta artean apezgaitegi askotan euskara irakatsi egiten zela.

Eboluzioa, egoeraren normalizaziora doa. Ibon Sarasolaren *Euskal literatura numerotan* liburuan, garbi ikusten da bilakabide hori. Sarasolak idazle langileak bakarrik aztertzen ditu, hau da, aipaturiko urte horietan libururen bat idatzi dutenak. Ba, horren araberrako goitik beherakoa hau da, Sarasolaren karkuluak elkar lotuz:

---

natural y lógica de su vascoiberismo; Mukarovsky ha vuelto a resucitar el tema de estas relaciones. Por otra parte, la tesis *euskaro-caucásica* se ha reafirmado netamente con los trabajos de UHLENBECK, DUMEZIL, BOUDA y LAFON. En general, admira al profano la entrega profesional y humana de estos científicos, que han consagrado años —a veces, diríase que la vida entera— al estudio del pasado original del euskera.

#### El vasco-iberismo

La vieja tesis de que el vasco era la lengua primitiva de las Españas —tesis muy reiterada entre los antiguos historiados del País— dio por resultado la afirmación del vasco-iberismo. Esta hipótesis volvió a tomar cuerpo desde 1821 (W. Humboldt) y 1908 (Schuchardt), en un contexto, desde luego mucho más rigurosamente científico. En particular, SCHUCHARDT puso en juego todo su genio científico, que no era poco, para darle un fundamento consistente. Para ello, se apoyó en sus conocimientos de las lenguas y la epigrafía ibérica, no descifradas aún, y ofreció una declinación ibérica, reconstruida, afin a la euskérica.

Diez años después, GOMEZ MORENO logró descifrar la escritura ibérica (1918-1922). A partir de ese momento, para su recta inteligencia y de acuerdo con la teoría vasco-iberista, sólo restaba dar su traducción a través de un trabajo comparativo con el euskera. Desde entonces, todos los esfuerzos encaminados a esta exégesis han resultado baldíos, y las escrituras —leídas sí, pero no entendidas— siguen enigmáticas. Y esto, *digan lo que digan los no especialistas,*

	1934-1935	1962-1963	1972-1973
Sekularrak ... ..	% 41,6	% 25	% 53,1
Apaiz ... ..	% 58,4	% 75	% 46,9

Sarasola berarekin gogoratuko dut gerra ondoko eboluzioa % 75etik % 47rako dela, eta lehenengo aldiz euskal literaturan apezei sekularrak nagusitzen zaizkiela. Gerra aurrean (% 58,4) baino handiagoa da apezen proportzioa gerra ondoren (% 75). Hizkuntzaren bizi kondizioen zailtasunen berri emateko eta berrikuntza non hasi zen adierazteko indikatzaile ona izan daiteke hau; bat gehiago.

Dena den, zein erlatiboki, zein absolutuki, Elizaldek adiztera ematen duen egoera baino hobea da oraingo gurea. Villasantek euskal Literaturaren Historian dakarrenez<sup>6</sup>, zera aitortzen omen zuen *Euzkadi* aldizkarian, 1912an, Elizalde: euskaltzaleak guti batzu zirela, apez, abokatu, medikuren bat... «*y dos matemáticos que somos Bustinza y yo*».

## IDAZLEEN LEKU-JATORRIA

### IDAZLEEN SORLEKUA

Modan dago jatorri geografikoaren azterketa. Geografiazko banakuntzari dagokionean, jaiolekua besterik ez dugu aztertzen guk. Gerorako utziko dugu, hiri-biltzearen eragipena, irakaslekuena eta seminarioen influentzia, eta holakoak aztertzea.

Ez dugu berri zehatzik, deus erabakitzeke. Orain, bidezko da, gure ustetan, hortik jotzea. Literatur bokazioen gain,

---

*a duras penas podría ocurrir si el ibérico fuera una forma antigua del vasco o, por lo menos, una lengua emparentada de cerca con él (L. MICHELENA).*

La hipótesis tan brillantemente sustentada por Hugo Schuchardt no pudo superar la prueba de fuego de ese análisis comparativo. Lo que parece ya definitivamente demostrado es que, *si en cualquier caso, existe una relación (entre vasco e ibero), no es ciertamente una relación de filiación (LAFON)*. Este convencimiento, empero, no debe frenar a los futuros investigadores que, con natural cautela, intentan desentrañar el significado de las inscripciones ibéricas y los orígenes del euskera. Al fin, ambos problemas —por su misma condición de no aclarados— permanecen abiertos para los investigadores futuros.

### La antigua lengua aquitana

Al contrario de la hipótesis vasco-ibérica que ha sufrido un retroceso desde 1918, los descubrimientos realizados al norte de la actual área vascofona arrojan más luz. Aunque nuestros conocimientos del aquitano son extremadamente reducidos (nombres de personas y divinidades), la evidente prosapia vasca de las inscripciones halladas ha llevado a los especialistas a hablar del *euskera vasco-aquitano*. Se trataría del mismo euskera (antiguo) o una lengua genéticamente entroncada con aquel.

Este territorio vasco-aquitano se extendería hasta el Valle de Arán (*andere, ilurberri*) y St. Béat en el Alto Garona (*seme, bihotz, ilun*) por el este, y hasta

giro, ingurumari, ikasgu eta antzekoek ukan lezaketen influentzia estudiantzekoa da, nahiz eta, Escarpit-ek kontseilatzen duenez, zuhurtziaz handiena behar: «*C'est avec une grande prudence que nous indiquons l'influence possible des milieux et institutions —cours, académies, parlements, centres urbains, universités— sur les vocations littéraires. Les recherches qu'on entreprendra pour élucider ces phénomènes devront être menées avec une extrême circonspection*»<sup>7</sup>.

Ez da dudarik. Inguruak eragin handia du norbait idaztera bultzatzeko. Norbait kultur bizitza aberatsean hazia bada, harako joerarekin etor daiteke. Baina beste gertakaririk ere bada tar-tean. Horregatik zuhurtzia. Ingurutik idazlearen bokazioa egikaritzera, ez dago lerro zuzenik. Idazteari norbait ekin dakion, seminariotik edo Unibertsitatetik igarotzea aski izan daiteke. Bada, gainera, lanbidezko mugikortasunetik aparte, geografiazko mugikortasuna ere. Ezin daiteke, ba, geografiazko jatorriaren eragina esajera. Are gutiago, euskal idazleari maiz gertatzen zaiona haintzat harturik. Edozein idazlek baino gutiago idazten du euskal idazleak bere inguruari, geografiazko inguruari esan nahi dugu, mintzatzeko, hori da egia. Idazlea ikasia den artean, hizkuntzaz analfabetoa bait da haren ingurua, eskolarik ezaren erruz. Beste inon baino handiagoa da, jakina, idazlearen eta publikoaren arteko aldea; distantzia dramatikoak idazlearentzat. Gizon hautsia da, horregatik, euskal idazlea: hain zuzen, elitista ez izanik, orori edo gehienei mintzatu nahi eta guti batzuk uler diezaioketelako. Euskal Herrian bizi den % 17k (hots, 510.000k) uler badiezaiokete ere<sup>8</sup>, egiazko irakurleen xifrak beheragotik dabilzake, euskara dakitenena eta kulturaz jantzien multzoa ez bait dute pertsona berek osatzen.

---

la línea del río Garona por el norte, avanzando hasta el Océano por el oeste. A pesar de que la hipótesis se sustenta en un elenco muy exiguo de inscripciones, se admite, en general, que *la lengua aquitana (...) parece estar emparentada de cerca con la lengua vasca* (LAFON).

¿La familia euskaro-caucásica?

En el momento en que se escriben estas líneas ha llegado al gran público el eco de un nuevo episodio relativo al tema. El *Bronce de Botorrita* (1969), hallado a 20 kms. de Zaragoza, habría enfrentado de nuevo las dos hipótesis del vasco-iberismo y el euskaro-caucasicismo.

A medida que la hipótesis vascoiberista perdía relevancia, ha ganado en vigor y consistencia científica la del parentesco euskaro-caucásico, aunque la lectura del *Bronce de Botorrita*, interpretado por un ingeniero soviético no aporte nada sustancialmente nuevo. Una gran parte de la ingente obra de R. LAFON se ha encaminado a establecer sobre bases científicas este parentesco. En 1947 exponía así su tesis predilecta: *La lengua vasca (con la lengua aquitana) está emparentada con las lenguas caucásicas. Forman una familia que se puede llamar euskaro-caucásica, y cuyo período de unidad no parece sobrepasar más allá del III milenio anterior a nuestra Era. Así, pues, la familia euskaro-caucásica se habría fragmentado en varios grupos ya antes del 2500 a. C.*

Frente a esta valoración, que estima la tesis euskaro-caucásica, si no como

Aitzin ohar hauk egin ostean, jatorriaren eraginaren ebidentzia onar dezagun, batez ere geografiazko jatorri horri hizkuntzarena gaineratu edo itsatsi behar zaionean. Honexegatik da hain zuzen horren garrantzizkoa geografia euskal idazleriaren baitan. Geografiak euskalkia markatzen bait du.

Geografiazko karta honen ( ikus 92 or. ) lehen begiratzuz, gauza bat ageri da nabarmen: literatur bizitza, ekintza, Euskal Herriaren parte baten lana da, ez Euskal Herri osoarena. Euskal Herriko maparen goiko partean biltzen dira idazleak, erretiradan baleude bezala, edota azken posizioak defenditu nahian. Eta bada holakorik. Idazleen kokapena, hizkuntzaren errainu eta islada besterik ez da. Hutsik dauden lurraldeetan, non hizkuntzaren galtzea, ahultzea, han analfabetismoa egin da lekuaren eta jendearen jabe.

Kultur bizitzaren eta idazle bokazioaren harremanaren hipotesia etengabe gogoan ukanik, lur-karta astiroxeago igarotzeak merezi du:

Ezkerretik irakurtzen hasiz, Bizkaian, % 5 baino idazle gehiagoko bi eskualde ikus genitzake. Bilboko eta Gernikako eskualdeei dagozkie kontzentrazio horik. Bi kulturgune, pentsatuko da. Baliteke, baina ez dut horren garbi ikusten Gernikaren kasua. Altuberren influentzia irakurri behar ote da hor? Ez dakit. Baina, egia esan, gernikar idazle horik, eta ingurukoak, banan banan hartuz ikus dezakeguna, zera da: alegia, Gernikatik kanpora antolatzen eta desarroilatzen dutela gehienek beren idazle-bizitza.

Bizkaian bertan, Gipuzkoareriko muga aldera, eskas ikusten da idazlerik. Idazle guti ateratzen da orain hortik.

---

la respuesta definitivamente probada, sí, al menos, como la vía por la que queda al fin correctamente encaminado el debate, Luis MICHELENA se ha mostrado mucho más escéptico (1963): *Los enigmas de la prehistoria del vasco y de las lenguas caucásicas, que no son pocos ni de pequeña entidad, no han recibido luz alguna de los ensayos comparativos hasta ahora realizados*. Este pesimismo del gran lingüista parece nacer de objeciones fundamentales al método seguido y de planteos generales considerados metodológicamente insuficientes. No se niegan ciertas adquisiciones concretas y secundarias para la cuestión de fondo. El problema básico residiría en uno de los extremos comparados, es decir, en las lenguas caucásicas. En efecto, si lo que se busca es un tronco común euskaro-caucásico habría que comenzar por dar previamente un origen común al frondoso y heterogéneo bosque de las lenguas del Cáucaso, y esto sigue siendo aún una aspiración no colmada.

No obstante, en 1973, aun dejando constancia expresa de los reparos presentados por Michelena, Lafon se ha ratificado en sus tesis generales: la construcción *ergativa* ('gizonak egin du'; 'gizona etorri da'), que es común al euskera y las lenguas caucásicas, e inexistente en el indoeuropeo; las correspondencias fonológicas y léxicas y los sufijos, siguen, según él, dando bases sólidas a su hipó-



Eta, beraz, garai batetan, XIX. mendean, hizkuntza literario bezala, modan izandako euskalki aldeak, gizarte indarra galdu egin du orain. Hizkuntza barneko hipotesia soilki kontutan harturik, bidezkoago litzateke euskal idazleak hortxe erretzea; hain zuzen, hizkuntza idatzi bezala indar gehiago duen gipuzkeratik Markinara distantzia gutiago bait dago, Gernika batera baino. Baina gaurregun ez da horrela gertatzen.

Gipuzkoa da, lur karta honetan, denetan nagusi, eta alde handiarekin izan ere.

Gipuzkoan, Donostia da txapeldun, ororen % 15arekin. Beste bi eskualde ere idazle-emaile dira, Tolosa-Hernani, alde batetik; eta Zarautz-Azpeitia, bestetik. Hauetan dagoke euskara mintzatua ere bizienik, agian, Goiherrirekin batean.

Arabian idazlerik ez egoteak zerbait sakonagorik salatzen du. Ezaguna da Gasteizko oraingo kultur bizitza joria, baina neurri handi batetan ez da autoktonoa, Gipuzkoa aldetik aldatua baizik. Horregatik ezin da analisi honetan horren aztarnarik topatu.

Nafarroan, dauden idazle guti horik, Gipuzkoatik gertu dauden herritan sortuak dira. Erakarmen indarragatik?

## GIPUZKOA ERDIAN

Euskal Herria probintziaz probintzia zatikatzen badugu, administrazioaren arabera, Gipuzkoa da oparoena idazleak ematen. (Euskalkien arazoan sartu gabe orain). Gipuzkoa daurrena % 61arekin. Atzean, urruti dator Bizkaia, % 22'5arekin. Askoz urrunago, Nafarroa, % 3arekin bakarrik, lotsagarri. Arabak ez du batto ere. Osterantzekoek (ipar aldekoek eta atzerriar jaiok) % 13'5 osatzen dute.

---

tesis. Por ello, Lafon no ha renunciado a sugerir también opiniones históricas, explicativas de estas afinidades genéticas por encima de las distancias geográficas de ambos grupos euskaro-caucásicos.

Descartada, por falta de vestigios lingüísticos, la hipótesis explicativa de una gran familia lingüística preindoeuropea establecida en todo el espacio que media entre Oriente y Occidente, se puede pensar, según él, en una migración marítima que desembarcando en el Pirineo oriental, habría avanzado hasta el Atlántico. El autor no hace sino ratificarse en lo dicho en 1947: *la lengua vasca ha sido ciertamente introducida por inmigrantes en la región donde es hablada actualmente. Es menos antigua que el pueblo que la habla.*

